

# BI DOBERMAN BELTZ

Kutxako bulego zentralen  
hogeitabederatzi uite dituen  
Arana jaunaren soiluen  
hozten du aire giroak.  
Hari musikalan Kateatirik  
Paul Mauriaten orkestrak  
Nirvanaren kanta eskaini dio:  
"Izpiritu gaztearen usaina dario".  
Bybitik pasatuko zaito,  
atekatara azken distortsioa  
Sistemak itentsi egin duela,  
berak ilea galdu baino bizkorrago.

Lana bukatu bezain pronto  
amorrva nagusituko da,  
Kreditoz ordaintzen ari den  
etxebizitzako egongelan.  
Epeka - epeka erosi zuen  
HiFi Kate musikalean  
Rollins Banden poderioa  
"Isiltasunaren amaiera".  
JBL bafleetatik  
musikaren ordezt, betoitzak erakusten  
atera dira bi doberman beltz  
bilatzen eta suntsitzen.

BI DOBERMAN BELTZ, bilatzen eta suntsitzen.  
BI DOBERMAN BELTZ, bilatzen eta suntsitzen.

Lilurapenean Henriettari  
zu hiltzea eskatuko diozu,  
baina berak bizkarra emanda  
"Bilatu eta suntsitu" leituko duzu  
Eta tatuaturiko eguzkia  
balantza erraldoia bihurtuko da.  
Alde batean: Justizia,  
Kontrapisuan: Egia.  
Orduan Robert de Nirok  
Isifar bat eskainiko dizu,  
pelikuletan ez bezala, errealitatean  
izvak ez baitu mugarik.



Zure masailan kokka sentitzean  
konturatuko zara zergatik  
dedikatu zion Anibal Lecterrek  
oskar saria bere amari.  
Hurtengo egynean kristalez beste aldean  
seguro egozko, atzerapen  
mekanismo eta alama  
dispositibo, babesturik dago.  
Dirua zenbatzean orotuko da,  
Banku atrakatzailer bat izan nahi zuela.  
Laster handiagotuko du  
buruz beste egiten dutenen zerrenda.

BI DOBERMAN BELTZ, bilatzen eta suntsitzen.  
BI DOBERMAN BELTZ, bilatzen eta suntsitzen.  
BI DOBERMAN BELTZ.  
BI DOBERMAN BELTZ.







**BOST GEHIAGO**

st



HIPOKRISIARI STOP!  
ITXURAKERIARI STOP!

Nire herrian Colomboren ondoan  
Luis Marianok badu jada tokia.  
Guda zibila izan zela eta,  
erbestean hasi zen abesten mahasbiltzan.  
Jaioterrira ospe haundiz itzultzean  
ongi-etorria baino izan zen agurra.

HIPOKRISIARI STOP!



SIN + Masada

HIPOKRISIARI STOP!  
ITXURAKERIARI STOP!

Hipokrisiaren erresuman  
ez dago lekurik errugabeentzat.  
Homosexuala eta gorría  
batkamenik gabeko bekatuak.  
Franco, Franco, Francoren lemapean  
desfilatzen zuten Irungo Herriak.

HIPOKRISIARI STOP!  
ITXURAKERIARI STOP!



## DOLLAR AREA

Hainbeste txorakeri entzuten dugun  
garai nahasi eta hortasunik gabekotan.  
Norberak berea eta ez beste inorena  
ikusten ikasi duen garai hartan.

Zen erreza den denboraren paderioz,  
gizon baten bizitza balio gabezia.  
Zenbat ilusio, fede eta zuhurtasun  
galdutak Historiaren kutxa beltzean.

Lenin, aizak !!  
Hire izena ukatu ditek.

Lenin, aizak !!  
Hire lanak mespretxatu ere.

Lenin, aizak !!  
Laster etorriko dituk bueltak.

Langilea, langabea, pobrezia, gabezia,  
denak estaltzen ditu diruaren gutziak.  
Desberdintasun basati, gutxiak zergatia,  
dolarraren magalean izkutatzen da.

Batezuen bakea besteek gerran ordaindu behar,  
Historiaren kurpila bueltaka berriro.  
Badakik Vladimir horrek zer esan nahi duen,  
gizakiak Historiari beste kape bat zor zion.

Lenin, aizak !!  
Hire izena ukatu ditek.

Lenin, aizak !!  
Hire lanak mespretxatu ere.  
Laster etorriko dituk bueltak.







Amari itxoiten Aitak besoetan har nazar Lehen eskola egunari Ditiak noiz haziko



# ITXOITEN

Examinari  
Lana noiz lortuko  
Norbaiti  
Berak nire denbora bete dezan  
Haurra noiz jaioko  
Umea noiz kozkortuko  
ITXOITEN  
ITXOITEN  
ITXOITEN  
ITXOITEN



ITXOITEN  
ITXOITEN

Bera nire bila noiz etorriko seme-alaben bisitaldiari Liberazioari ITXOITEN



Liberazioari ITXOITEN



# J.F.K.

"Kennedy gure laguna zen  
anai bat bezala.  
Askatasunaren Kennedy  
zergatik zaude hilda?"

Ez naiz oroitzen zein utertan  
Kennedyren klana jada prest zegoen  
B-52, marine eta beste  
laguntzar Euskadi askatzeaz zen.

Moskutatsek ordea, ez zuten maite  
Kennedyren barre zoragarria,  
dutkan kantatzen "Gora ta gora"  
"aurresku" dantza eta "xisteta".

Hossegatik zuten goiz triste batez  
milaka balazoz befitirako Ken.  
Eta Euskal Herrian jende guztiak  
isilpean zuten triste kantatzen:

Kennedy gure laguna zen .....LAGUN AMERIKARRA  
Anai bat bezala .....LAGUN AMERIKARRA  
Askatasunaren Kennedy .....LAGUN AMERIKARRA  
Zergatik zaude hilda? .....LAGUN AMERIKARRA

Bronx eta Harlem, nor da oroitzen  
Kennedy for president hori nor zen?  
Haren hazia oraindik ere  
Kraak eta heroinaz dute gosaltzen.

Equituta hiltzen Los Angelesen.  
Gorpuak Laos eta Vietnamen.  
Corea, Granada eta Panaman.  
Gorpuak berriso gaiko Iraken.

"Oilaskoak tegira itzultzen dira".  
Oliver Stone berando ibili zen,  
azkeneko Bahía de Cochinos  
CNNk zuzenean bota bait zuen  
eta hilotz bategi badakielako  
sekretuak beti ondo gordetzen.

Erlak ahizpekin kantatzen gerven,  
baina Kennedy hilak hobeto zeuden.  
Salbatzaulerik gabe gelditu gara,  
agur dezagun lagun amerikarra:



Ernesto Guevara "Che" .....GURE LAGUNA DA!  
Malcolm X .....GURE LAGUNA DA!  
Angela Davis .....GURE LAGUNA DA!  
Emiliano Zapata .....GURE LAGUNA DA!  
Augusto Sandino .....GURE LAGUNA DA!  
Carlos Fonseca .....GURE LAGUNA DA!  
Tupac Amayú .....GURE LAGUNA DA!  
Tatanka Yotanka .....GURE LAGUNA DA!  
Simon Bolívar .....GURE LAGUNA DA!  
Jose Martí .....GURE LAGUNA DA!

LAGUN AMERIKARRA!  
LAGUN AMERIKARRA!



# KOLORE BIZIA

Hainbeste kolore ikusi eta gero  
Inork erran zuen : Kolore batval  
Despistatu batek orduan Benetton  
Jestsei bat erosi zuen benetan.  
Eta galdetzen badidazu  
zein kolore nahiago duzun  
badakizu nere erantzuna :

## KOLORE BIZIA

Hauxe da arrazakeriaren kontra  
manifestazioa zeren eta  
Lucreciari eskaini nahi izan nion  
olerki xamur eta labur bat.  
Eta Estatuaren Segurtasun Indarren kontra  
panfleto bat alera zitzaidan  
politikari guztiak faltsvak baitira .

Txanpona botatzea bezala balitz  
Iparra ala Hegoa , gerta kulturala .  
Anai - arrebak defendatuko ditugu  
Afro - euskaldunak garelá , ez ahaztu .  
Ali , Mohamed , Kepa , Ismael  
eta Zimbaweko tribu guztiak ,  
mixeria erasotuko dugu .

KOLORE BIZIA , arrazakeriaren kontra .  
KOLORE GUZTIAK , faxismoaren kontra .  
KOLORE BIZIA , Xenofobiaren kontra  
KOLORE GUZTIAK , faltsvakeriaren kontra .

KOLORE BIZIA , arrazakeriaren kontra .  
KOLORE GUZTIAK , faxismoaren kontra .  
KOLORE BIZIA , Xenofobiaren kontra  
KOLORE GUZTIAK , faltsvakeriaren kontra .





Telebistako sail aspergarrri bat  
ikusten ari nintzen baina  
aurrezlea Sabel hiztuna zen  
eta horrek beti erakarri izan nau.

Sabel hiztunet buruzko terrorezko  
pelikula guztiak irentsi ditut,  
non eskizofreniak panpin hiltzailea  
eta gizakia nahasten dituen.

Egun horretan gainera gonbidatu  
baine ministraria zegoen hantxe.  
Eta nik ez nekien aurrezleak  
ateratako beste panpina bat zeneitz.

SABEL HIZTUNAREN ORDU IKARAGARRIA Hasten da.  
PANPINA MALTZURRAREN JOLAS BELDURGARRIA Itxi begiak.

Ministrariak ala panpinak ?  
Lege berria azaltzen zuen :  
Argi zegoen bera zela hiltzailea  
nor zen nor bereiztu ez arien.

Hitz erasotzaile hoiak  
azkarregi egin zuten topo  
egun osoan buruan zebilkidan  
"Guns of Brixton" Kantarekin :

"Zure atera ostikadak jotzen  
iristean, nola istengo zara?  
Eskuak buru gainean  
ala pistolaren gailuan ?"

SABEL HIZTUNAREN ORDU IKARAGARRIA Itzali telebista.  
PANPINA MALTZURRAREN JOLAS BELDURGARRIA Ireki begiak.

Tochuratzale batzu kondekoratuak  
Egunkarian irakustzeak  
"Nik tiro egin nion Komisarioari"  
Kanta gogorazazi zidan.

Eta denok badakigu noizta ari naizen,  
egun hastan eurijasa izan baitzen.  
Eta beste bat eta beste bat etorri dira,  
Sabel hiztunaren panpinak bezala.

Kalean ordea, tiro hotsak entzun ziren,  
hemeretzi urteko gazte batek  
Karneta eskatu zion poliziaari  
3 bala sartu zizkionean.



SABEL HIZTUNAREN ORDU IKARAGARRIA Itzali telebista  
PANPINA MALTZURRAREN JOLAS BELDURGARRIA Isten kalera.





HILZEKO ERA UGARI DAGO  
HILZEKO MODU ASKO  
sabelean labana bat sartu ahal dizute.  
ogia ukatu, gaitasun bat sendatu ez,  
errebizitza kaxkar batean sartu,  
zeure buruz beste egitera bultzatu,  
lanaren bitartez heriotzera aste torturatu,  
gerrara etaman eta abar...

GUZTI HAUETATIK OSO GAUZA GUTXI  
DAUDE DEBEKATUTA GURE ESTATU HONETAN





Esta triste Lady Di pero mais triste esta King Kong  
King Kong five beltza da  
Todos somos Malcolm X e hai galegos que non somos da interpol  
¿cando se xoga a pelota á pelota aquí?

Nos escombros de confusión de Saraxevo todos somos Malcolm X  
Na resistencia palestina e nos escaparates rotos de Los Angeles todos somos Malcolm X  
Na precisión do aizcolari e cando lle plantamos cara ás 1000 caras do verdugo  
Todos somos Malcolm X

"España roya y rota y mis cojones también"  
o Verdugo tem 1000 caras "y mis cojones también"  
Medo, pánico, terror a un planeta vasco.

Esta triste Lady Di e iso que non ten o RH negativo  
Esta triste King Kong e ten o RH peludo "y mis cojones también"  
países pequenos, grandes coraxes  
medo, pánico, terror é o que lle teñem a un planeta vasco  
txanquiro habería que facer co cerebro e o subconscient dalgúns  
beltza da o RH de Malcolm X "y mis cojones también"  
pero cando se vai xogar á pelota nesta puta galaxia!





# BORREROAK BADITU MILAKA AURPEGI

## EUROPAK GERRA DAKAR

Badakar  
Gora Paris-Dakar  
Gilotina beti dator  
hegoaren iparraldetik  
gainetik.



Gezurrezko ohitura  
Kultura  
non dago tortura?  
Esistitzen ez dena  
ez da esistitzen ta kito  
txikito.



KAZETARI ZIPAIO  
tokaio  
Kartzelero arraio  
Sindikatuan dabil  
funtzionari gizarajoa  
majoa.

Goikoa beti ona  
funtziona  
non dago komona?  
Burokrazia beltza  
burokrazia abertzalea  
ere bai.

TELEBISTAko parlantxina  
Kotxina  
"Gaizki dabil Txina"  
Begiratu zure salan  
nonahi dago Estatu  
sartua.



Gasteiz edo Washington  
Washington  
Bush edo Bushclinton  
Nik ere nahi dut bozkatu  
gure hurrengo borreeroa  
eroa.





# ROCK & ROLLAREN JUKUTRIA

Punk-rocka industriari ipurdian  
ostikada bat emateko jaio zen.  
Anarkia U.K.n, number one zerrendetan.  
Atera dezagun dirua kaasetik.  
Me debo ir o quedarme Levisentzat.  
No more heroes gezurrik haundiena zen.


ROCK & ROLLAREN INDUSTRIA  
ROCK & ROLLAREN JUKUTRIA

Atzera ez begiratu ziotenak  
itzuli egin dira gogorazteko  
duela 20 urte kanta on batzu egin zutela.  
Amorrva, indarra, garaiko izerdia  
"Har ezazu dirua eta korrika egin"  
filmaren bestsioa besterik ez da.

ROCK & ROLLAREN INDUSTRIA  
ROCK & ROLLAREN JUKUTRIA

Egun Claptonen Leyla eta No Future nagusi.  
Ergelen paradisuari beste kisten bat naiz.  
Sinéad O'Connorek gerra egin ondoren  
Aita Santuaren irudia txikitzean,  
Johnny Ustelak Phil Collinsen ipurdia  
mufukatzen zuen, dinosaurioen clubean  
sartu ahal izateko.

ROCK & ROLLAREN INDUSTRIA  
ROCK & ROLLAREN JUKUTRIA






# PISTOLAREN MINTZOA

Hitzak dakartza haizeak  
basoaren aldeak;  
hitz berberak errekar  
behin eta berriro.  
Su inguruan bilduta  
inor ez da mintzo,  
zai eta zai gogaitua  
ze itxaropen?

Hitzak soberan daude  
pistolak mintza bitez

Hiriko horma guztiak  
luntzerakoan  
hitzez dira betetzen  
ixil-ixilean.  
So okerdun gizonak,  
gor eta mutu,  
zabortezi itzalak  
ehotzen dituzte.

Hitzak soberan daude  
pistolak mintza bitez



Hitzez kondentatua  
Hitzez epaitua  
Hitzez-hitz zigoitua  
Hitzez-hitz auztua.  
Munduko hiztegi oro  
ari da negarrez,  
aditzak beldurtiak  
geldi-geldi daude.

Hitzak soberan daude  
pistolak mintza bitez





Nire kotxe gorrian irudiak, pasatzen ikusten ditut.  
Dena estaltzen duen ur jario meheak, inguruak lausotzen ditu.  
Inguruneak  
lausotzen ditu.


Bikote bat eztaba datzen eta bultzaka, telefono publiko batean  
deitzen ari direla. Itzultzen dira eta harrirituta begiratzen didate.  
Harrirituta begiratzen  
begiratzen didate.

Eta bat, bi, hiru, lau, atzera begiratzen dut: errepidea bustita.  
Eta kotxearen atzetik, korrika egiten ikusten zaitudala iruditzen zait.  
Ikusten zaitudala  
iruditzen zait.

Aurpegia eraldaturik oihukatzen didazu  
eta ni urruntzen naiz, gero eta azkarrago, eta irristatzen ikusten  
ikusten zaitut.

Eta ERORI  
ERORI  
ERORI  
ERORI  
Behin eta berriz.

Irri eginez, hau ezin dela pentsatzen dut.  
Hilda. Uleitzen duzu? Hilda. Uleitzen?  
Uler al dezakezu hilda egotea zer den?  
Uler al dezakezu hilda egotea zer den?



SK & M&L



# CHAQUITO



Maiatzaren Lehena  
Irautza Plaza.  
El Salvadorreko elbarritvekin  
Chaquito arduraduna.

Ezkerreko ukabila  
harro altxatzen du.  
Eskubiko besorik ez du  
osorik galdu zuen.

Oihaneko gatazkan  
guztiz tebea zen.  
Etsaiak jautsiriko granadak  
bueltatzen zituen.

Guardia Nazionalak  
aita hil zion.  
Bere aurrtean negar egiten  
ez zuen egin otoitz.

"Bala hori bihotzean  
banu bezala,  
sentitu egiten dut, compañeros,  
hete alta ikustean.

"Papito chulo" zioen  
"Madarikatuak" ere bai.  
Umea zena kolpe batez  
gizon bihurtu zen".

Zortzi urte borrokan  
granada lehertu aste.  
Elkaritasunak Kubara eramain zuen  
Chaquito beste bi urtez.

Itzultzeko desioa  
errealitatea orain.  
Ukabila izan den eskua  
irekitzen du alai.

uztailak 26  
Kanpamendutik herri.  
Gora gerrila / Gora bakea!  
Jada etxean gara.

Ohorezko pasabidean  
banderak eta loreak.  
Itxaropenaren ilusioa  
dastatu egiten da

F.M.L.N.  
F.M.L.N.

Askapen Nazionalerako Farabundo Martí Frontea



# EUSKALDUNOK ETA ZIENTZIA

Arkimidesek asmatu zuen aspaldi  
gorputz solido bat likido bafetan  
murgiltzerakoan, kanpotatzen den bolumena  
gorputzaren berdina dela.

Baina euskaldunok badakigu  
tronpatu egin zela grekoa  
Biriketan beti, bada zer bait  
eta horregatik potu egiten dugu examenetan

ZIENTZIA ETA EUSKALDUNOK

Newtonek aspaldian asmatu zuen  
grabitatearen poderioz sagarrak  
Kupela ezezik, lurra duela helburu.  
Lurra duela helburu, kupela ezezik.

Baina euskaldunok badakigu  
sagarra duela lurra helburu  
Kasernetako eskailetan  
grabitate gabeko gorpuak garenetan.

ZIENTZIA ETA EUSKALDUNOK

Galileok esan zuen aspaldi,  
borreroen zuzia begietan  
eguzkiak egiten diola  
itzulia munduari.

Eta euskaldunok, horixe bera  
errepikatzen dugu behin eta beriz,  
bost egunetan zehar gehienez, hori bai,  
zientzia aplikatuen laborategi diren komisaldegitan.

ZIENTZIA ETA EUSKALDUNOK

Einsteinek sortu zuen  
erlatibitatearen teoria  
inork ulertzen ez duen formula  
enigmatiko baten bidez adierasten dena.

Euskaldunok, noski,  
bat egiten dugu betarekin,  
galdera egiten duenaren arabera  
aldatzen baita gure jatorria

ZIENTZIA ETA EUSKALDUNOK  
ZIENTZIA ETA EUSKALDUNOK





# HEMEN IZANGO BAZINA

HEMEN IZANGO BAZINA, ez nuke bestea beharrik izango.  
HEMEN IZANGO BAZINA, ez nuke lelokeriarik esango.  
HEMEN IZANGO BAZINA, ez nuke moztorrik behariko.  
HEMEN IZANGO BAZINA, ez nuke almeskatiborrik izango.  
HEMEN IZANGO BAZINA



HEMEN IZANGO BAZINA, maratxiz jantzitako lezurdura batzuek :  
!! Ez egun negar ene laztana, Jainkoak jagofen gaitu !!  
Dylan Durangoan matzemundu zela gogoratiaz herak abestuko lukete.  
Eta goian dugun eguzkiak, ez luke beharreko ilunik jarriko.

HEMEN IZANGO BAZINA

Harrobarren etzean, basamortuan, so eginez,  
azkeneko pitxadurak ez ninduke harra pakiko.  
Kristalezko kutha batelari amildegitik janziko nintzafere.  
Ibiloidareu auaatera noiz irrisiko den larritu gabe

HEMEN IZANGO BAZINA

HEMEN IZANGO BAZINA  
HEMEN IZANGO BAZINA





# KAIKO


Edonor jaiotzerakoan  
bizitza agurtzen besterik ez denean  
etorkizunaren ikuspen erakusketan baten...  
negarrez hasten da ...

Eta gurasoak pozik ...  
ppezik osaindik  
eta umea negarrez...  
negarrez uluak

Edonoren herotzean  
bizitza agurtzen besterik ez denean  
egurrezko kutxa baten aldean  
jendea negarrez hasten da ...

Eta sende guztiak triste ...  
denak oso triste daude  
eta defuntua ixilik ...

Ixil ixilik dago  
Bizitzaren trofakeriak  
hasi eta bukatu negarrez  
Hauxe duk hauxe ...





# ARRANO BELTZA

1200, 1332, 1379,  
1512,  
1609, 1789, 1794,  
1839, 1878,  
1931, 1937, 1966, 1971...

Arrano Beltzarekin joan ziren  
joan ziren joan

Jaen go

Nayas de Tolosara  
Nafarrak  
etakkate

Kateekin itzuli etxera  
etakkate

Kateak ekarri herrira,  
hasmarrira.

Afzerritarrentzat  
afzerrian

getla irabazi

eta herrian Nafarroa galdu  
nafar

aroa galdu

Ez dea bada  
etsipengarrrrrrria  
oraindik

ez dugula ik<sup>u</sup>si  
a  
aski

it

ba

nun

da

ez

giiii

giiiiib

giiib

gibel

bel

gibelet

beletik eman



nor nor nor  
noik ez daki  
digutela  
ematen ari  
ari hari ahari  
ari zaizkigula  
digutela  
eman  
emannnn!  
ematennnnn!



eman eta har  
eman eta har  
sar eta har  
hastuko  
sastuko



dugula  
dugula digutela  
sastuko  
hastuko

bal  
din din  
din baldin  
tozzzzzzz  
datoz  
datoz datozenean  
ematera  
ez badugu

behingoz lehiatila nola itxi ikasten

